

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

362/2016 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, onartzen duena María Emilia Montoya Martínez de Santosen behin-behineko izendapena, Lantarongo Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 2016ko abuztuaren 1etik 24ra

Lantarongo Udalak zerbitzu honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra duela, adierazitako aldi horretan Álvaro Ainsa Cajal udaleko idazkari-kontuhartzailea ordezkatzeko.

Horregatik, proposatu du udal horretan administrari lanetan diharduen María Emilia Montoya Martínez de Santos behin-behineko izendatzea aldi horretarako.

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 33. artikuluan (ekainaren 27ko 834/2003 Errege Dekretuak emandako idazkeran) xedatutakoari jarraituz.

Kontuan hartu da abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, toki administrazioaren arrazionalizatzeko eta iraunkortasunarenak, 25. artikuluan xedatutakoa; hain zuzen ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, aldatzen du horrek, 92 bis artikulua berria sartuta, non toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua finkatzen baita.

1732/1994 Errege Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarrian agindutakoa eta 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 40. artikuluan jasotako eskumenak betez, haien indarrez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Emilia Montoya Martínez de Santos Lantarongo Udaleko behin-behineko idazkari-kontuhartzaile izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan 2016ko abuztuaren 1etik 24ra, titularra ez dagoen bitartean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazi den aldirako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Lantarongo Udalari eta Eusko Jaur-laritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ